

JOSE MARI GORROÑO - GERNIKA-LUMOKO ALKATEA

«Liburutegi bat hobeago bategatik ordezkatzeari da asmoa»

Bilkuran izandako desadostasuna gainditu eta Udal iburutegiaren proiektua gauzatzea espero du Gorroñok.

DANEL LAUZIRIKA

Zein da Pasealekuko eraikinen egoera?

Eraikin bietako bakoitzak 715 metro koadro ditu. Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren jabetzapekoak dira hezkuntza alorrera bideratuak daudelako, eta Udal jabetzapekoak izatea da asmoa. Hezkuntza Sailaren Berritzegunea orientazio Udal jabetzapeko Artekale 8ko eraikinaren hirugarren solairuan dago. Berritzegunean lanpostu gehiago sortu dira horrek Lea Artibai eta Busturialdea osoari zerbitzua ematen diolako. Beraz, leku gehiago behar dute legeak hamasei langilerentzako 320 metro koadro inguru eskatzen duelako. Oraingo lokalak 270 metro koadro ditu. Hezkuntza Sailak Berritzeguneak toki gehiago behar zuela eta Pasealekuko eraikin bietako batean kokatzeko asmoa zutela adierazi ziguten.

Zein da Earen proposamena?

Gure asmoa Pasealekuko eraikinetako batean, elizaren albokoan, 715 metro koadroko liburutegia egitea zen. Gaur egungoak ez ditu beharrezko baldintzak betetzen. Jaurlaritzak Berritzegunearen kokapenerako alternatiba bat eskatzen zuen. Horrela, gaur egungo liburutegiaren lokala gehi metro koadro gehiago Hezkuntza Sailari eman eta guk liburutegia ordezkatzeko genuke. Kultur etxeari ez genioke funtziorik kenduko, liburutegiaren espazioa biderkatu egingo zelako. Berritzeguneari tokia egitearen truke Pasealekuko eraikinak eta Berritzegunearen lokala eskuratuko lituzke Udalak. Guztira 1.700 metro koadro inguru. Irisgarritasun baldintzak hobeto betetzen dituelako eta erakusketetarako egokiagoa delako alderdi batek Berritzeguneari gaur egungo liburutegia eman beharrean kultur etxeko goiko solairua ematea proposatu zuen. Guk ez ditugu kultur etxearen funtzioak hipotekatzen. Liburutegi bat hobeago bategatik ordezkatzeari da asmoa.

Gaia jorratzean alderdien arteko desadostasuna izan zen nagusi.

Guk lanpostu horiek Gernikan mantendu nahi ditugu. Hezkuntza Saila Pasealekuko eraikinak eta Berritzegunea emateko prest dago, eta horrela Gernikako herria irabazten irtengo litzateke. Ezinezkoa da gurea ez den guztia hartu eta besteei ezer ez ematea. Alde biek proposamen hori onena zela uste genuen. Alderdi batzuk ados ez daudenez puntua gai ordenetik kanpo utzi nuen. Ez dut uste liburutegi baten inguruko gaia polemikoa izan behar denik. Beste alderdiek alternatiba arrazional eta logikoa aurkeztea espero dut.

Zer gertatuko da proiektuarekin?

Proiektua onartuta dago. Orain esleipena falta da. Desadostasunaren ondorioz bere gauzapena atzeratu egingo da.